

Liburuak

KRITIKA

Egun bat Petre Romanescuren bizitzan.
Xabier Mendiguren Elizegi;
Manu Ortega (irudiak).
Erein. 10 urtetik aurrera. 68 orrialde. 8 euro.



Haur eta gazte literatura
Manu López Gaseni

Errealismo errumaniarra

Egun bat Petre Romanescuren bizitzan ipuina Xabier Mendiguren Elizegi editore eta idazlearen bigarren Zarauzko Lizardi Saria izan da, 1988an *Montse-txikiren azio handiak* delakoarekin nagusitu ondoren. Eta, azken urteotako ohitura berriari jarraituz, irabazlea aldarrikatzearekin batera aurkeztu da liburuaren edizioa.

Tituluak Alexander Solzhenitsyn-en *Egun bat Ivan Denisovich-en bizitzan* gulag-eko bizimoduari buruzko eleberri laburraren oihartzunak omen dituen arren, *Egun bat Petre Romanescuren bizitzan* haur literaturan oso ohikoa den “eskolarako idazlanaren” aitzakiarekin idatzita dago. Haatik, Petreri ez zaio idaztea gehiegi gustatzen, eta nahiago du eguneko gora-beherak azken urtebetetzean oparitu dioten bideo-kameraren bitartez jasotzea. Edonola ere, liburu osatu duen testua idatzizkoa zein mintzatua izan, mardul-mardula eta biribil-biribila atera zaio lehen pertsonan kontatzen digun Petre gazteari.

Kontuak kontu, errumaniar familia osoarekin batera igarotako egun bat kontatzen digute Petreren kamerak eta ahotsak zuzen-zuzenean, gauzak gertatzen ari diren unean bertan. Furgonetan sartu, eta mendira abiatu dira piknika egingo duten tokiaren bila. Petreren jardunean nahastu egiten dira gertakizunen narrazioa eta zinemako kontu tekniko-azalpenak (*flash-back*, elipsia...), eta bietan antzematen zaio narratzaile sena. Kamerak jasotzen duenaren arabera, familiako helduek askotariko lanbideak dituzte: igeltseroa, tabernaria, argiketaria, txapista... eta, ustekabea, Petre Romanescuk “Kraiovako Beltza”-rekin zerikusia duen harreman ilun bat jaso du, eta konturatu da familiako kide batzuk aztoratuta dabilzala horregatik. Une horretan etorri da ospakizuna hankaz gora jarri duen gertaera... eta hori ere kamera berriaz jasotzea lortu du Petre trebeak, era ezin bitxiagoan izan bada ere.

Liburuak, bistan denez, errumaniar etorkin batzuen bizimoduaren berri ematen du, haien pozak eta arazoak kontatzen ditu, eta horrekin bat egiten du Lizardi lehiaketan saritu ohi diren gai sozialeko beste haur obra askorekin.

Ez dakigu nolako nota jarriko zioten eskolan Petre Romanescuri lan horregatik, baina Xabier Mendigureni notarik onena jarri diote. Zorionak. ■

Armiarmak Alpontxorekin hizketan

IX. Serantes Antzerki Saria irabazi zuen Pablo Barriok *Armiarmategian* (*isil-misilka*) lanarekin, eta orain Artezblai argitaletxeak publikatu du. Maitasun istorioa kontatu du Barriok: antzezlaneko protagonistak, Alpontxok, inoiz adierazi ez duen maitasunaren istorioa. Bere burua aurkitu nahian, maitasun hori argitzeko asmoz, gogoetan

aurkituko dugu Alpontxo. Ez dago bakarrik orde: armiarma bikotea izango du lagun, izaera handiko zomorro pare. “Gu gara munduko ordenaren arduradun” aldarrikatuko dute. Alpontxok, bi intsektuekin berriketan, pertsonen jokaerei buruzko begirada ironikoa eskainiko dio irakurleari, armiarma-sarearen antzera egituratutako antzezlan honetan. ■



Armiarmategian...
Pablo Barrio.
Artezblai.
78 orrialde.
9 euro.

Teknologiak egungo kulturan duen zereginaz

Jakin aldizkariaren 171. zenbakiak teknologia du ardatz. Zehazki, teknologiak gaur egungo kulturan betetzen duen zereginaz ari dira hainbat aditu: Juan Bautista Bengoetxeak egin du sarrera, baita teknozientziari buruzko artikulua ere. Marila Lázaro herriarren parte-hartzeaz idatzi du; Katinka Waelbers-ek erantzukizun moralak egungo kultura teknologikoan sortzen dituen arazoez; Adam Briggie-ek eta Carl Mitcham-ek, informazio teknologien zentraltasunaz; Topi Heikkerök teknologiaren garapenak bizi hobeak ekartzen ote digun galdetu du; Stephen H. Cutcliffe-ek

eta Christine Pense-ek, azkenik, nanoteknologiak hitz egin dute. ■



Jakin 171.
Batzuen artean.
Jakin.
146 orrialde.
10,50 euro.